

noaue

**Xabier Arregi izango da
EH Bilduren hautagaia**

**Uztailaren 1etik aurrera,
Zubietako zati batean
atez ate jarriko da martxan**

**“Lotzen gaTTunk”,
#Kilometroak15-eko
kantua**



Mundu bat Korrika

Beltzean mintzo

Amerikako jatorrizko hizkuntzen arnasaz



Usurbilen Udalak

noqua

APIRILAK 15, ASTEAZKENA
18:00 SUTEGIN, DOAN

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €_{tik}

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^º Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Garaiko arraina, apirilaren 5eko Tipi-Tapan

Produktu ezberdinekin, bere erara prestatuko dituzte tabernariak, apirilaren 5ean ospatuko den Tipi-Tapako pintxo bereziak. Oraingoan garaiko arrainarekin. Edariarekin batera, 2 euroren truke dastatu ahalko ditugu, goiz partean hasi eta arratsaldeko 15:00ak aldera arte, Txiriboga, Aitzaga, Txirristra, Bordatxo, Artzabal eta Txapelkun tabernetan.

Ez ahaztu pintxoak dastatzen joan ahala, Tipi-Tapa txarteleko zigiluak biltzeaz. Zigilu guztiak lortzean, sartu txartela, tabernetan egongo diren kaxetan. Bi sariren zozketan parte hartzeko aukera izango duzue hartara; Hurbi-lago Elkarteko establezimenduetan xahutzeko 150 euroko erosketa txartela eta Txirristran dastatzeko bi laguntzako afaria zuenak izan daitezke. Aipatu tabernan ospatuko da sarion hurrengo zozketa. Datorren Tipi-Tapa amaieran; apirilaren 5ean, arratsaldeko 15:00etan, Txirristra tabernan.



2 euroren truke, edaria eta pintxoak eskuratu ahal izango ditugu.

Laburrean

KzGunea, apirilean arratsaldean

Arratsaldean irekiko dute apirilean KzGunea, 16:00-20:00 artean. Apirilaren 13tik 24ra, Oinarrizko Internet Ikastaroa antolatu dute. Saiok bi aste, astelehenetik ostiralera, 16:00-18:00 artean. Informazio gehiago: Nagusia, 37 / 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

Apirilean hasiko da Usurbilgo Pilota Txapelketa

Apirilaren 10ean hasiko da Usurbilgo 43. Pilota Txapelketa. Aurten nagusitan bi mailatan jokatu da. Apirilaren 11n larunbata lehen neurketak, Aginagan, goizeko 11:00etan hasita. Apirilaren 12an igandea Usurbilen jokatu dira partidak, 11:00etan.

Aste Santuan eta Pazko Astean, NOAUA!rik ez

Eskuartearen duzue Aste Santu aurreko astekaria. Apirilaren 17ra arte ez da NOAUA! berririk izanen. Web orria, ordea, www.noaua.eus martxan izango da. Apirilaren 17ko astekarirako oharrak, zorian agurrak... apirilaren 13rako ekarri edo bidali email honetara: erredakzioa@noaua.eus

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubidea.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada:

2.800 ale.

Lege-Gordailua:

SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Aritz Gorriti**

Lotzen Gattunkenean...

Aurreko ostiralean ikusterik izan ez genuen eklipsea bezala, luza-roan ez dugu biziko igaro den asteburukoa. Herri bat lotzen duten bi ekimenen bat egite historikoa. Asteburuan gertatu da, bi urtean behin gure artetik igarotzen den Korrika eta nork daki berriz antolatuko ote den #Kilometroak15 bat egitea. Aurreko igandean Gaztetxe parean jazo zen. Korrikaren lekukoa, aldi berean Kilometroetako lekukoa duen Udarregi Ikastolak hartu zuenean. Irakasle, guraso eta haurrek, Korrikarenarekin batera, Gattunk leloa lau haizeetara zabaltu zutenean. Une gogoangarria eta adierazgarria zalan-

tzarik gabe, euskahalduntzearen aldeko ibilbidean zetozenentzat, bidera batu zirenentzat. Batu nahi dutenentzat baita.

Bi urtez zain egon eta minutu gutxitan gure artetik igaro zen arren, Korrikak arrastoa utzi du beste behin ere. Oraingoan, bizitzen ari garen Kilometroak urte hau dela eta, arrasto sakonagoa. Gogoan izan beharrekoa. Euskarak, hezkuntzak, ikastolak elkar hurbiltzen gaituelako. Abesti berriak ere argi dio; "Lotzen Gattunk" izango dugu, urriaren 4ko Kilometroetako soinu-banda. Abesti ezin herrikoia. Herritarren auzolanez idatzi, musikatu, grabatu eta abestu dena. Kanta ikasten trebeenak gaztetxoak di-

tugu. Abestia, aurreko astean Potxoenean aurkeztu zutenean argi erakutsi zuten, letra inork baino hobeto ikasia dutela jada. Aste hasieran ospatu zuten, Korrika Txikian ere kantatu zuten. Entzuten hasi gara abestia. Sarriago entzungo dugu aurreantzean. Laster bideoklip eta guztirekin.

Modu honetan, #Kilometroak15 ekimeneko antolatzaileek urte honetarako iragarria zuten maratonia, egutegia eskutan, erdibidera heldu da. Eta metroz metro, aurrerantz doa. Pausoz pauso, Korrikak igandean gure artean osatu zuen ibilbidea bezala. Mantsoago joan zen eremu batzuetan, biziago bestetan.

Nekea bazen, korrika ari zirenen artean. Baina neke gozoa. Gaindiezina, geldiezina den neke hori. "Lotzen GaTTunk"-enean aurpegia aldatzen zaigu eta. Tenkatutako soka askatzen hasten da, ahultasuna indargune bihurtu, distantzia hurbiltasun, zatiketa batasun, etsipena baikortasun, seriotasuna irribarre, grisa kolore. Lasterka jarri gattunk Korrikan, eta euskahalduntzen lagunduko digu Kilometroak ekimenak. Batean zein bestean, herri bat ama hizkuntzaren, hezkuntzaren alde, bilduta, lotuta. Argi da, ibilbidea ez da amaituko igandean Bilbon, ezta urriaren 4an Usurbilen. Gerora ere euskahalduntzen jarraitu behar. Oraindik ere behar dugu eta.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Sutegi udal liburutegiko txokoa

Mailegatuenak 2014 (eta III): Sutegi udal liburutegia



Liburutegi Orokorra:
euskarazko liburuak

Nevadako egunak

Bernardo Atxaga
Pamiela, 2013

Euli giro

Uxue Alberdi, Susa, 2013

Habiak (komikia)

Maite Gurrutxaga, Txalaparta, 2014

Gehiago: <https://www.pinterest.com/sutegi05/7-mailegatuenak-2014-liburutegi-oroak/>



Liburutegi Orokorra:
gaztelarazko liburuak

El cielo ha vuelto

Clara Sanchez, Planeta, 2013

La última noche de Tremor Beach,

Mikel Santiago, Ediciones B., 2014

La hondonada

J. Lahiri, Salamandra, 2014

Gehiago: <https://www.pinterest.com/sutegi05/8-los-m%C3%A1s-prestados-2014-biblioteca-general/>

Ikusentzunezkoak:

Le week-end

Film. Britainia Handia, 2013
Zuzendaria: Roger Michell

Izenik gabe, 200x133

(Dokumentala J.L. Zumetaren sortze prozesuaz), 2014

Ken Zazpi & Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Elkar, DVD-2013

Gehiago (pelikulak eta dokumentalak):
<https://www.pinterest.com/sutegi05/9-mailegatuenak-2014-pelikulak-eta-dokumentalak/>

Gehiago (musika):
<https://www.pinterest.com/sutegi05/10-mailegatuenak-2014-musika/>

Sutegi Udal Liburutegia

Liburutegia non?: Irazu 14

Eta sarean:

Bloga, <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

Twitter:

@usurbil

Facebook:

Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia

Noa! Komunitatea:

Sutegi Udal Liburutegia

App:

Liburutegiak

Sutegi Udal Liburutegia

Xabier Arregi izango da EH Bilduren alkategaia

Koalizioak Xabier Arregi aurkeztuko du alkategai gisa, maiatzaren 24an ospatuko diren udal hauteskundeetara. Osatu duten zerrendan badira egungo udal gobernu taldean diren zenbait kide, baina baita fitxaketa berriak ere. “Esperientzia eta freskotasuna, emakumeak eta gizonak, belaunaldi ezberdinen arteko oreka, heldutasuna eta gaztetasuna, auzoen arteko oreka izan dira kontuan izan ditugun ezaugarriak, zerrenda osatzeko garaian”, Usurbilgo EHBildutik berri eman dutenez.

Honatx zerrenda:

Xabier Arregi

Alaitz Aizpurua

Xuban Zubiria

Jone Urdanpilleta

Iñaki Ugarte

Irene Gartzia

Josune Estella

Joxe Mari Iribar (argazkian ez dago)

Bego Elexpe

Eustakio Arrojeria

Ixabel Korta (argazkian ez dago)

Jose Piñas

Kuluxka Olaizola

Asier Iturralde



Aurreko larunbateko batzarrean izendatu zuten udal hauteskundeetarako hautagaitza.

liteke izenen bat gehitzea zerrenda honi, baina momentuz hauen konfirmazioa daukagu”. Hauteskundeetarako zerrenda eta datorren oporraldi ostean etxez etxe banatu asmo duten herri programa, larunbat goizean Potxoenean egin zuten batzarrean bozkatu eta onartu zituzten.

Azken hilabeteotako prozesua boro bildu zuten martxoaren 21ean. “Azaroan abiatu genuen prozesua. Balantzea egin eta ia 80 herritarrakin aurrez aurre partekatu genuen. Ondoren, etxe guztietan banatu eta ekarpenak egiteko aukera zabaldu genuen. Ekarpen haiekin herri programako lehen zirriborroa osatu eta ia 200 herritarrekin partekatu dugu, ekarpenak egiteko aukera irekiz. Martxoaren 7an egin genuen mintegian puntuz pun-

tukako hausnarketa eta ekarpenak jaso genituen. Horrekin batera lehentasunak ere jarri genituen”, Usurbilgo EHBildutik adierazi dutenez.

Oraindik falta dira beste hautagaitza batzuk

Usurbilgo Hamaikabat alderdiak oraindik ez du hautagaitzarik aurkeztu.

EAJ-PNV alderdia izan zen bere alkategaia aurkeztu lehena. Josune Urkola izango da alkategaia.

Alderdi sozialistak ez du zehaztu oraindik nor aurkeztuko duen Usurbilen. Ricardo Crespo, egungo zinegotzia, Herriaren zerrendan joango baita datozen udal hauteskundeetan.

Herri programa etxez etxe banatuko dute

Hortxe Usurbilgo EHBilduk legegintzal-di berriari begira osatu duen lan taldea. Ohartarazi dutenez halere, “oraindik ba-

Ika-Mika

Herri anitza, herri aberatsa

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen martxoaren 21ean, eta, egun hori aitzakia hartuta, Usurbilgo EH Bilduk zera adierazten du:

1. Herrian bizi diren pertsona guztiak dira herritarrak, edonon jaioak direla ere.
2. Herritar guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak. Eta horretarako lanketa bat egingo da.

- a. Pertsona guztien eskubideak bermatzeko.
- b. Aukera berdintasuna bermatzeko.
- d. Ezberdin izateko eskubidea bermatzeko.
3. Jarrera xenofobo eta arrazistak identifikatu eta salatuko dira.
4. Jendarte kohesionatu eta justu bat eraiki behar da, lehian baino elkartzunean oinarritutakoa, eta aniztasuna beldurrez eta gatazka iturri bezala hartu beharrean, aberastasun iturri bezala hartuko duena.

5. Bide horretan elkarbizitza da gakoa. Horretarako, beharrezkoa da elkar-ezagutza eta elkar-aitortza aitortzea.
6. Herrian dagoen kultura eta hizkuntza aniztasuna aberasgarria da herriarentzat, eta, horiek babestu eta indartzeko lanketa egingo da, betiere, euskara kohesio eta komunikazio hizkuntza bezala aitortuz.

EH Bilduren adierazpen instituzionala

* Ika Mika atalerako idatzia 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 17. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 13.

Gattunk dendaren ordutegia

Kolore biziz heldu da udaberria #Kilometroak15 ekimenaren aldeko dendara. Urtaro berri-rako duten eskaintza ezagutu eta erosketak egin nahi badituzue, irekita izango da Gattunk datorren oporraldian ere, apirilaren 2an, 3an, 5ean eta 6an izan ezik. Jai egunak baitira. Guztiz finkatu gabe badute ere, apirilaren 4an irekitzekotan dira, 10:30-13:00 artean. Ordutegian edozein aldaketa balego, dendako atean bertan jakinaraziko dute halere. Gainerakoan, ordutegi honetan aurkituko duzue zabalik: Astelehenetik larunbatera: 10:30-13:00 // 17:00-20:00. (Astelehen goiz, larunbat arratsalde eta igandeetan itxita).



Apirilaren 4an larunbata irekitzekotan dira. Dendan jakinaraziko dute, halere.

Lilatoiko kamisetak

Lilatoiko kamiseta teknikoak salgai dituzte oraindik, Gattunk dendan. 18 eurotan eskura ditzakezue kamiseta hauek.

Banderola

Gattunk dendan salgai egoten jarraitzen dute bestalde, #Kilometroak15 ekimenaren aldeko banderolak. 5 eurotan eskura daitezke.

Zumetatarren serigrafiak

Zumetatarrek bere ekarpena egin diote #Kilometroak15 jaiari. 150 eurotan daude salgai, Gattunk dendan.

Apirilean, bi antzezlan

Alex Tellok zuzenduriko bi antzezlan #Kilometroak15 ekimenaren baitan programatu dira, apirilerako:

Apirilak 11, larunbata

19:30 Atea Teatro taldearen "Zu Gabe" antzezlan Sutejin. Sarrera: egunean bertan, 6 euro. Edukia: "Nahi baino lehenago banandu ginen eta bizitzarekin aurrera jarraitu behar izan nuen, zu gabe. Eta justu orain, gehien behar zintudanean azaldu zara". Bizitzaz eta

heriotzaz hausnarketa egingo dute aktoreek. Dramaren xedea ikuslea hunkitzea baino gogoetara eramatea da.

Zuzendaria: Alex Tello. Aktoreak: Anabel Arraiza, Inazio Tolosa.

Musika: Mikel Laboa. Eszenografia: Jose Luis Zumetaren irudiak. Argiztapen diseinua: Xabier Lozano.

Apirilak 29, asteazkena

20:00 Aurreestreinaldia Artzabal tabernan: "Ekoetikopatetikobikoa" (poltsiko antzerkia).



"Zu gabe" antzezlaneko aktoreak.

Aktoreak: Anabel Arraiza eta Jabier Rodil.

Gidoia eta zuzendaritza: Alex Tello. Sarrera: egunean bertan, 5 euro (antzerkia+pintxo).

Antolatzailea: #Kilometroak15.

Jai parekideen aldeko formakuntza

#Kilometroak 15, Matrakak eta Usurbilgo Udalaren eskutik, apirilaren 15ean eta maiatzaren 6an, 18:00-20:00 artean Potxoenean. Miren Guillo, Emagin elkarteko kideak bideratuko du. "Kilometroak 2015-aren antolaketa eta programatu diren ekintzetan parekidetasun irizpidea txertatze aldera, jaien inguruko hausnarketatik abiatuz, jai parekideak sustatzeko giltzarriak jorratuko dira". Dokumental bat ikusteko aukera izango da.



Santixabelak, uztailaren 1etik 5era

Jai Batzordeak finkatu ditu jada, Usurbilgo festetako egunak; uztailaren 1etik 5era ospatuko dira 2015eko Santixabelak. Hurrengo bilera apirilaren 27an astelehena egingo da, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Santixabeletako egitarau lehiaketa

Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da maiatzaren 12ra arte. Oinarriak Potxoenean edo kultura@usurbil.eus helbidera idatziz eskura ditzakezue. Argibide gehiagorako: 943 371 999.

USURBIL AUTOAK

·TAILERRA·KARROZERIA·KOTXEEN SALMENTA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Uztailaren 1etik, Zubietan ere atez ate

Santuenetik Zubietako Kaxkoraino dagoen tartean, Araundi kalean, Txakurtxulon eta Barrenetxeko etxebizitzetako hondakinak atez ate biltzen hasiko dira, uztailaren 1etik aurrera. Sistema berriaren nondik norakoen berri eman zuten martxoaren 16an Zubietako Herri Batzarrak eta Usurbilgo Udalak, herritarrekin Kaxkapen egin zuten aurkezpene bileran.

Datozen asteotan, Atez Ateko Informazio Bulegoko langile bat etxez etxe joango da argibideak ematera, bilketaren kokapenak adosteko eta egongo balira, bizilagunen ekarpenak jasotzeko.

Kokapenaz ari garela, uztailaren 1erako denak prest egon beharko du. Zintzilikagailuak maiatzean zehar jarri asmo dituzte, Santuenea Zubietarekin lotzen duen bidean zehar edo bidegurutzetean. Apirilean zehaztuko dira bizilagunekin, bilketa guneak zeintzuk izango diren. Beste puntu garrantzitsua; baliabideena. Hondakinak atez ate biltzen hasiko diren zubietarrek, ekainean jasoko dituzte hondakinak gaika sailkatzeko ontziak. Bi ontzi marroi organikoarentzat eta beste bat, grisa, erreusarentzat. Usurbilen ditugun ontzi berak izango dira. Ezberdintasun bakarra; Zubietaren aipamena jasoko duen irudia izango dutela ontziok.

Aldaketa, erreusaren bilketa zerbitzuan

Erreusaren bilketari loturiko bi ohar jakinarazi zituzten martxoaren 16ko bileran; lehena, atez atekoa egingo duten zubietarrei eragingo diena. Hain zuzen, Usurbilen iazko udatik martxan den sortzez besteko ordainketa sistema aplikatuko zaie. Hau da, hiru hilabetero 16,94 euroko tasa finkoa ordainduko dute eta erreus ontzia ateratzen duten bakoitzero, 0,68 euro gehiago. Usurbilen bezala alegia.

Erreusaren bilketari loturiko bigarren aldaketa, hau bai, atez ateko bilketa egiten duten herritar orori eragingo diona. Herritarrek erreusaren ontzia etxe atarira gutxitan ateratzen dutela ikusita, birzikla ezina den hondakin zatia hamabostean behin (bi igandez behin) biltzen hastea aurreikusia du Udalak, uztailetik aurrera. Egun, asteroko zerbitzua eskaintzen du.

Diru kontuekin jarraituz, Usurbilen be-



Atez atekoaren nondik norakoak azaldu zituzten Kaxkapen, martxoaren 16ko bilkuran.

ZUBIETAKO ZATI BATEAN

Sistema honetatik kanpo geratuko diren zonaldeko bizilagunei,
Donostiako lurretan bizi diren herritarrei galdetuko zaie ia egitasmo honetan parte hartu nahi duten. Izen emateko zerrenda pasako zaie

zala, %40ko hobaria aplikatzen segiko zaie, auto edo auzokonpostatze egitasmoetan parte hartzen duten zubietarrei. %20koa, egitasmo horietan parte hartu arren, udal zerbitzuren bat baliatu behar dutenei. Zubietako eraikin askok lur eremua dutela ikusita, organikoa konpostatzeko aukera sustatzen segi nahi du Udalak.

Galdeketa, atez ateko eremutik kanpo geratuko direnei

Beste aldaketa bat: hondakinak atez ate bilduko zaizkien zubietarrei, Garbitxiko giltza desaktibatuko die Udalak. "Larrialdi kasueterako edo bilketa eskaintzen ez zaien etxeei utziko zaie soilik", Kaxkapen ohartarazi zuten.

Aipatu moduan, oraingoz atez ateko bilketa ez da Zubieta osora hedatuko. Baina sistema honetatik kanpo geratuko diren zonaldeko bizilagunei, Donostiako lurretan bizi diren herritarrei galdetuko zaie ia egitasmo honetan parte hartu nahi duten. Izen emateko zerrenda pasako zaie. Garrantzitsutzat jo zuten galdeketa hau bileran, ze eskari legokeen jakin nahi luke eta Udalak.

"Sistema eraginkorra da"

Zubietako Herri Batzarrak argi du bilketa sistema honen aldeko apustua egin beharra dagoela. Fernando Iturralde alkateak Kaxkapeko bilkuran zioenez, "sistema eraginkorra da, hondakinak hobekien sailkatu eta emaitza hoberenak ematen dituen".

Bilketa sistema berrirako prestaketak, aurreikusitako egutegia:

- Apirilean: Atez Ateko Informazio Bulegoko langileak, datozen aldaketen inguruko informazioa emango die bizilagunei, etxez etxe.
- Maiatzean: zintzilikagailuak jarriko dira.
- Ekainean: informazio eta ontzien banaketa.
- Uztailaren 1ean: atez ate bilketaren hasiera.

Atez ateko bilketa egutegia, Usurbilgo berbera:

- Astelehen, ostegun eta larunbatetan organikoa bilduko da.
- Astearte eta ostiraletan plastikoa.
- Asteazkenetan papera eta kartoia.
- Igandeetan, erreusa.

Hondakinak etxe atarian uzteko ordutegia:

- 06:30-08:30.

Informazio eta argibide gehiagorako:

Atez Ateko Informazio Bulegoa
Doako telefonoa: 900 776 776.
Ordutegia: 09:00-14:30 (astelehen/ostirala)
Helbidea: Puntapax kalea, 10 behea.
E-maila: atezate@usurbil.eus

Herri bilera larunbatean Zubietan

Goizeko 11:00etan hasita Kaxkapen. Herri batzarrak martxoaren 28rako antolatu duen hitzorduan bi gaiok hartuko dituzte ahotan: azken lau urteetako balantzea eta etorkizuneko erronkak. Bileran parte hartzeko gonbita luzatzen dute.



Larunbat honetan, 11:00etan Kaxkapen.

Ziortzako udako kanpaldian izena emateko garaia da



Ziortzako gazteak, artxiboko irudi batean. Apirilean 30. urteurrena ospatuko dute.

Errioxako Peñaloscintosek harrera egingo die beste urte batez, uda honetan Ziortzako kanpaldira joango diren begirale eta LH 5-6ko eta DBHko gazteei. Ohi bezala, uztailean izango da, Santixabelak amaitu ostean helduko dira lehen txandako gazteak. Kanpaldirako antolaketak lanak abiatu dituzte Ziortzakoek. Aurrematrikulatzeko epea zabaldu dute.

Irekita egongo da, martxoaren 31ra arte. Plaza kopuru mugatua egongo da. Apuntatzeko eta informazio gehiagorako, idatzi ziortzage@gmail.com helbidera. Apuntatzeko datuok bidali: izen abizenak, helbidea, telefono zenbakia, maila, guraso edo tutorearen e-posta helbidea.

Bestela, Sutegin eta apaiz etxean eskuragarri egongo diren eskuorriak datuekin bete eta apaiz etxeko postontzian utzi. Jendaurreko hitzordu bat ere finkatu dute Ziortzakoek. Larunbat honetan, martxoak 28, goizeko 11:00etatik 13:00etara apaiz etxean egongo dira Ziortzako kideak, behar dituenari argibideak ematen. Aurrematrikulazioa egin nahi duenak ere bertara jo dezake egun horretan. "Udako egun batzuk lagunartean eta naturarekin gozatuz pasa nahi al dituzu? Ziortzako kanpaldira etortzera gonbidatzen zaitugu!", luzatu dute gonbita Ziortzakoek.

Kanpaldiko txandak

- Lehen txanda: uztailean 7-21, DBH-koentzat.
- Bigarren txanda: uztailean 21etik 30era. LH 5-6koentzat.

Ziortzaren 30. urteurrena

Apirilak 18, larunbata

- 12:00 Argazki proiektzioa eta omenaldia Sutegin. Ondoren, erakusketaren irekiera, Sutegin.
- 13:00 Trikipoteoa.
- 14:30 Bazkaria. Txartelak salgai: Bordatxon, Aitzagan eta Apaiz-etxean.

Apirilak 19, igandea

- 12:00 Eukaristia.

Apirilak 18-26

- 17:00-19:00 Erakusketa, Sutegiko aretoan.

Apirilak 26, igandea

- 10:00 Gaztetxoen txanda jolasak frontoian.
 - 14:00 Bazkaria (norberak berea ekarri, eta edaria eta postrea Ziortzaren kontura).
 - 15:30 Jolasen jarraipena.
 - 18:00 Dantzaldia.
- Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkarte.

Aste Santuan hainbat ekitaldi Gaztelekuan

Apirilak 9, osteguna

- 15:30 Gaztelekutik Andatza irteera. Nori zuzendua: DBH 2ko gazteak.
- Oharra: izen emateko, guraso baimena Gaztelekura eraman behar da.

Apirilak 11, larunbata

- 16:00 Pizza tailerra Gaztelekuan. Nori zuzendua: DBH1eko gazteak.
- Informazio gehiago: Gaztelekuan.

Ikastaro ugari Aginagan

Haur nahiz helduentzat bada non aukeratua:

Aste Santuko Txokoak

Egunak: martxoak 30, 31. Apirilak 1, 7, 8, 9 eta 10. Orduetgia: sarrera 9:00-10:00 artean, irteera 13:00ean.

Pintura ikastaroa haurrentzat

Iraupena: apirila-abendua.
Orduetgia: 17:00-18:30.
Tokia: helduen pintura gela.
Oharra: haur kopuruaren arabera zehaztuko da hasteko eguna.

Yoga ikastaroa helduentzat

Iraupena: apirila-abendua.
Orduetgia: asteartetan, 14:30-15:30 artean.
Tokia: psikomotrizitate gela.

Zumba, heldu eta haurrentzat

Iraupena: apirila-abendua.
Orduetgia: asteazketan. 16:45-17:45 artean. Eliza Zaharrean.

Patin ikastaroa

Iraupena: 6 aste, apirila-maiatzaren artean.
Orduetgia: ostiralean, 16:45-17:45 artean.

Apuntatzeko azken eguna:

martxoak 25 asteazkena
aginaga@eskolatxikiak.org
607484597 (Ainhua)

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elizak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

egunero 06:00tik 21:00ra
(asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

TAXI
24 h

ORAIN 8 PLAZA!

677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

Zuri esker

“Gizarte
Zerbitzuei esker,
pertsonek bat
kontratatu dugu
etxean aita
zaintzen
laguntzeko.”

Javier, 57 urte



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

Soinurbil, iruditan

Zumarte Musika Eskolak antolatu zuen Soinurbil lekimenari esker, musika blai izan ginen martxoaren 10etik 15erako astean. Hamai-kagarren edizioak, Reunion Big-Band taldekoen jazz doinuak, Legazpiko Musika Bandaren edota Elgoibarko Musika Eskolako kideen bisitak ekarri dizkigu.



Goran, Zumarte Musika Eskolako ikasleak. Behean ezkerretara, Reunion Big Bandekoak eta eskubitarra Legazpiko Musika Banda.

NOAUA!rik ez da izango Aste Santuan ezta Pazko Astean

Eskuartean duzue Aste Santu aurreko astekaria. Apirilaren 17ra arte ez da NOAUA! berririk izanen. Web orria, ordea, www.noaua.eus martxan izango da. Apirilaren 17ko astekarirako oharrak, zorian agurrak... apirilaren 13rako ekarri edo bidali email honetara: erredakzioa@noaua.eus

Laburbira, ostegun honetan Sutegin

Euskarazko film laburren ekoizpen berrienak ezagutu nahi badituzue, gerturatu ostegun honetan, martxoaren 26an, 19:00etan Sutegira. Ordu eta laurdeneko proiektioan, zortzi film labur ikusteko aukera izango dugu. Sarrera doan da. Urtero bezala, NOAUA!k eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen dute Laburbira Usurbilen.

Noaua!k
Udajolas-erako begiraleen
lan-poltsa osatzeko, begiraleak
behar ditu, uztailean lan egiteko.

PROFILA:
2 urteko esperientzia
Begirale titulua izatea
EGA edo balioakidea den agiria izatea
Usurbildarrek lehentasuna izango dute

Interesatuak:

Curriculum-ak apirilaren 3a baino
lehen ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaua.com



noaua



POLTSIKOKO ORDUTEGIA:

1) Moztu ezazu ordutegia kanpoko lerroa jarraituz.

2) Tolestu orria horizontalean dauden 5 lerroetatik, akordeoi moduko bat osatuz. Akordeoia istean, publizitatea geratu behar zaigu kanpoaldean.

3) Tolestu ordutegia lerro bertikaletik. Hau da, erditik tolestu, eta ordutegia osatua izango dugu!

Bezeroen arretarako bulegoa
902 54 32 10

Tren Ordutegia

www.euskotren.es
atcliente@euskotren.es

ZARAUZ-DONOSTIA

ZARAUZ	Zarauz	San Pedro	Orio	USURBIL	Donostia	Donostia	Donostia	Donostia	Donostia
06:08	06:08	06:15	06:24	06:29	06:32	06:35	06:38		
06:38	06:38	06:45	06:54	06:59	07:02	07:05	07:08		
07:08	07:08	07:15	07:24	07:29	07:32	07:35	07:38		
07:20		07:25	07:34	07:39	07:42	07:45	07:48		
07:38	07:38	07:45	07:54	07:59	08:02	08:05	08:08		
08:08	08:08	08:15	08:24	08:29	08:32	08:35	08:38		
08:20		08:25	08:34	08:39	08:42	08:45	08:48		
08:38	08:38	08:45	08:54	08:59	09:02	09:05	09:08		
09:08	09:08	09:15	09:24	09:29	09:32	09:35	09:38		
10:08	10:08	10:15	10:24	10:29	10:32	10:35	10:38		
11:08	11:08	11:15	11:24	11:29	11:32	11:35	11:38		
12:08	12:08	12:15	12:24	12:29	12:32	12:35	12:38		
13:08	13:08	13:15	13:24	13:29	13:32	13:35	13:38		
14:08	14:08	14:15	14:24	14:29	14:32	14:35	14:38		
15:08	15:08	15:15	15:24	15:29	15:32	15:35	15:38		
16:08	16:08	16:15	16:24	16:29	16:32	16:35	16:38		
17:08	17:08	17:15	17:24	17:29	17:32	17:35	17:38		
18:08	18:08	18:15	18:24	18:29	18:32	18:35	18:38		
19:08	19:08	19:15	19:24	19:29	19:32	19:35	19:38		
20:08	20:08	20:15	20:24	20:29	20:32	20:35	20:38		
21:08	21:08	21:15	21:24	21:29	21:32	21:35	21:38		
22:08	22:08	22:15	22:24	22:29	22:32	22:35	22:38		
23:08	23:08	23:15	23:24	23:29	23:32	23:35	23:38		

08:08 Astelehenetik Ostiralera (ANEQUINETA) 08:08 Astelehenetik Igandera eta JAIEAN

Donostia	Donostia	Donostia	Donostia	Donostia	USURBIL	Orio	Zarauz	San Pedro	ZARAUZ
06:50	06:53	06:56	06:59	07:04	07:14	07:19	07:20		
06:20	06:23	06:26	06:29	06:34	06:44	06:49	06:50		
06:50	06:53	06:56	06:59	07:04	07:14	07:19	07:20		
07:20	07:23	07:26	07:29	07:34	07:44	07:49	07:50		
07:50	07:53	07:56	07:59	08:04	08:14	08:19	08:20		
08:20	08:23	08:26	08:29	08:34	08:44	08:49	08:50		
08:50	08:53	08:56	08:59	09:04	09:14	09:19	09:20		
09:50	09:53	09:56	09:59	10:04	10:14	10:19	10:20		
10:50	10:53	10:56	10:59	11:04	11:14	11:19	11:20		
11:50	11:53	11:56	11:59	12:04	12:14	12:19	12:20		
12:20	12:23	12:26	12:29	12:34	12:44	12:49	12:50		
12:50	12:53	12:56	12:59	13:04	13:14	13:19	13:20		
13:20	13:23	13:26	13:29	13:34	13:44	13:49	13:50		
13:50	13:53	13:56	13:59	14:04	14:14	14:19	14:20		
14:20	14:23	14:26	14:29	14:34	14:44	14:49	14:50		
14:50	14:53	14:56	14:59	15:04	15:14	15:19	15:20		
15:20	15:23	15:26	15:29	15:34	15:44	15:49	15:50		
15:50	15:53	15:56	15:59	16:04	16:14	16:19	16:20		
16:20	16:23	16:26	16:29	16:34	16:44	16:49	16:50		
16:50	16:53	16:56	16:59	17:04	17:14	17:19	17:20		
17:20	17:23	17:26	17:29	17:34	17:44	17:49	17:50		
17:50	17:53	17:56	17:59	18:04	18:14	18:19	18:20		
18:20	18:23	18:26	18:29	18:34	18:44	18:49	18:50		
18:50	18:53	18:56	18:59	19:04	19:14	19:19	19:20		
19:20	19:23	19:26	19:29	19:34	19:44	19:49	19:50		
19:50	19:53	19:56	19:59	20:04	20:14	20:19	20:20		
20:20	20:23	20:26	20:29	20:34	20:44	20:49	20:50		
20:50	20:53	20:56	20:59	21:04	21:14	21:19	21:20		
21:50	21:53	21:56	21:59	22:04	22:14	22:19	22:20		

08:08 Astelehenetik Ostiralera (ANEQUINETA) 08:08 Astelehenetik Igandera eta JAIEAN

DONOSTIA - ZARAUZ

630 64 35 96*

BUS-TAXI

ZERBITZUA

Astelehenetik Ostiralera

GEITOKIAK	ORDUAK
1 Usurbil kaxkoa	7:30 10:30 13:00 15:30 19:00
2 Kalezar	7:32 10:32 13:02 15:32 19:02
3 Iartza	7:35 10:35 13:05 15:35 19:05
4 Ibarrola	7:38 10:38 13:08 15:38 19:08
5 Arratzain	7:42 10:42 13:12 15:42 19:12
6 Txantxon	7:45 10:45 13:15 15:45 19:15
7 Urdaira	7:48 10:48 13:18 15:48 19:18
8 Aginaga	7:55 10:55 13:25 15:55 19:25
9 Txokoalde	8:00 11:00 13:30 16:00 19:30
10 Urdaiaga (San Esteban)	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
11 Santuenea	8:05 11:05 13:35 16:05 19:35
12 Usurbil kaxkoa	8:08 11:08 13:38 16:08 19:38
13 Santuenea	8:10 11:10 13:40 16:10 19:40
14 Amiri	8:12 11:12 13:42 16:12 19:42
15 Etxetxo ingurua	8:14 11:14 13:44 16:14 19:44
16 Alkortaenea	8:17 11:17 13:47 16:17 19:47
17 Zubietta	8:22 11:22 13:52 16:22 19:52
18 Txikierdi	8:27 11:27 13:57 16:27 19:57
19 Usurbil kaxkoa	8:30 11:30 14:00 16:30 20:00

USURBIL - HERNANI AUTOBUSAK

USURBIL	ZUBIETA	LASARTE	URBIL	HERNANI
07:15	07:25	07:30	07:35	07:45
08:15	08:25	08:30	08:35	08:45
09:15	09:25	09:30	09:35	09:45
10:15	10:25	10:30	-	-
11:15	11:25	11:30	11:35	11:45
12:15	12:25	12:30	12:35	12:45
13:15	13:25	13:30	13:35	13:45
14:15	14:25	14:30	14:35	14:45
15:15	15:25	15:30	15:35	15:45
16:15	16:25	16:30	16:35	16:45
17:15	17:25	17:30	-	-
18:15	18:25	18:30	18:35	18:45
19:15	19:25	19:30	19:35	19:45
20:15	20:25	20:30	20:35	20:45
21:15	21:25	21:30	21:35	21:45

HERNANI	URBIL	LASARTE	ZUBIETA	USURBIL
07:45	07:55	08:00	07:05	07:15
08:45	08:55	09:00	08:05	08:15
09:45	09:55	10:00	09:05	09:15
-	-	11:00	10:05	10:15
11:45	11:55	12:00	11:05	11:15
12:45	12:55	13:00	12:05	12:15
13:45	13:55	14:00	13:05	13:15
14:45	14:55	15:00	14:05	14:15
15:45	15:55	16:00	15:05	15:15
16:45	16:55	17:00	16:05	16:15
-	-	18:00	17:05	17:15
18:45	18:55	19:00	18:05	18:15
19:45	19:55	20:00	19:05	19:15
20:45	20:55	21:00	20:05	20:15
21:45	21:55	22:00	21:05	21:15

Tolestu

Bezeroen arretarako bulegoa
www.tstst.info 943 36 17 41

OSPITALERA AUTOBUSAK

Lanegunak eta larunbata

AGINAGA	USURBIL (San Inazio)	LASARTE (Nepesio)	OSPITALEA	OSPITALEA	LASARTE (Nepesio)	USURBIL (San Inazio)	AGINAGA
07:17	07:20	07:35	07:45	08:10	-	08:20	-
-	08:20	08:35	08:45	08:50	09:00	09:15	-
10:17	10:20	10:35	10:45	09:50	10:00	10:15	10:17
-	11:20	11:35	11:45	11:10	-	11:20	-
-	12:20	12:35	12:45	11:50	12:00	12:15	-
-	13:20	13:35	13:45	12:50	13:00	13:15	-
14:17	14:20	14:35	14:45	13:50	14:00	14:15	14:17
-	15:20	15:35	15:45	15:10	-	15:20	-
16:17	16:20	16:35	16:45	15:50	16:00	16:15	16:17
-	17:20	17:35	17:45	16:50	17:00	17:15	-
-	18:20	18:35	18:45	18:10	-	18:20	-
-	19:20	19:35	19:45	18:50	19:00	19:15	-
20:17	20:20	20:35	20:45	19:50	20:00	20:15	20:17
-	21:20	21:35	21:45	20:50	21:00	21:15	-
22:37	22:40	22:55	-	22:10	22:20	22:35	22:37

943 000 117

www.lurraldebus.com

Moztu



Kale Nagusia 10, 20170 USURBIL
TEL. 943 36 11 82

egutegiak
aldizkariak
enpresa katalogoak
kartelak
liburu elektronikoak

PDF interaktiboak
logotipoak
eholkulenak komunikazio grafikoan
liburuak
bannerrak
publizitate komertziala

Zirkulu ibilidea, 2 / 2. pabiloia
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T 943 370 738 / F 943 372 226
info@antza.com - www.antza.com



antza

Autobus Ordutegia

DONOSTIA - ZARAUZ

DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ORIO	ZARAUZ
06.55	07.15	07.20	07.30	07.40
07.45	08.05	08.10	08.20	08.30
08.15	08.35	08.40	08.50	09.00
08.45	09.05	09.10	09.20	09.30
09.15	09.35	09.40	09.50	-
09.45	10.05	10.10	10.20	10.30
10.45	11.05	11.10	11.20	11.30
11.45	12.05	12.10	12.20	12.30
12.15	12.35	12.40	12.50	13.00
12.45	13.05	13.10	13.20	13.30
13.15	13.35	13.40	13.50	14.00
13.45	14.05	14.10	14.20	14.30
14.15	14.35	14.40	14.50	15.00
14.45	15.05	15.10	15.20	15.30
15.15	15.35	15.40	15.50	-
15.45	16.05	16.10	16.20	16.30
16.45	17.05	17.10	17.20	17.30
17.45	18.05	18.10	18.20	18.30
18.15	18.35	18.40	18.50	-
18.45	19.05	19.10	19.20	19.30
19.15	19.35	19.40	19.50	20.00
19.45	20.05	20.10	20.20	20.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45
22.15	22.35	22.40	22.50	23.00
23.00	23.20	23.25	23.35	23.45
00.00	00.20	00.25	00.35	00.45
01.00	01.20	01.25	01.35	01.45

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

ZARAUZ	ORIO	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
06.50	07.00	07.10	07.15	07.35
07.20	07.30	07.40	07.45	08.05
07.45	07.55	08.05	08.10	08.30
08.20	08.30	08.40	08.45	09.05
08.50	09.00	09.10	09.15	09.35
09.20	09.30	09.40	09.45	10.05
09.50	10.00	10.10	10.15	10.35
-	10.30	10.40	10.45	11.05
10.50	11.00	11.10	11.15	11.35
11.50	12.00	12.10	12.15	12.35
12.50	13.00	13.10	13.15	13.35
13.20	13.30	13.40	13.45	14.05
13.50	14.00	14.10	14.15	14.35
14.20	14.30	14.40	14.45	15.05
14.50	15.00	15.10	15.15	15.35
15.20	15.30	15.40	15.45	16.05
15.50	16.00	16.10	16.15	16.35
-	16.30	16.40	16.45	17.05
16.50	17.00	17.10	17.15	17.35
17.50	18.00	18.10	18.15	18.35
18.50	19.00	19.10	19.15	19.35
-	19.30	19.40	19.45	20.05
19.50	20.00	20.10	20.15	20.35
20.50	21.00	21.10	21.15	21.35
21.20	21.30	21.40	21.45	22.05
22.15	22.25	22.35	22.40	23.00
23.15	22.25	23.35	23.40	00.00

* OSTIRALETAN bakarrik

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

DONOSTIA - ZARAUZ

DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ORIO	ZARAUZ
* 08.00	08.20	08.25	08.35	08.45
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15
** 23.30	23.50	23.55	00.05	00.15

* larunbat JAIEGUNETAN bakarrik

** larunbatetan bakarrik

LARUNBAT GAUETAN

00.00	00.20	00.25	00.35	00.45
01.00	01.20	01.25	01.35	01.45
02.00	02.20	02.25	02.35	02.45
04.00	04.20	04.25	04.35	04.45
05.00	05.20	05.25	05.35	05.45
06.00	06.20	06.25	06.35	06.45

ZARAUZ	ORIO	USURBIL	URBIL	DONOSTIA
* 06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
07.45	07.55	08.05	08.15	08.35
08.45	08.55	09.05	09.15	09.35
09.45	09.55	10.05	10.15	10.35
10.45	10.55	11.05	11.15	11.35
11.45	11.55	12.05	12.15	12.35
12.45	12.55	13.05	13.15	13.35
13.45	13.55	14.05	14.15	14.35
14.45	14.55	15.05	15.15	15.35
15.45	15.55	16.05	16.15	16.35
16.45	16.55	17.05	17.15	17.35
17.45	17.55	18.05	18.15	18.35
18.45	18.55	19.05	19.15	19.35
19.45	19.55	20.05	20.15	20.35
20.45	20.55	21.05	21.15	21.35
21.45	21.55	22.05	22.15	22.35
** 22.45	22.55	23.05	23.15	23.35

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	23.40	00.00
00.15	00.25	00.35	00.40	01.00
01.15	01.25	01.35	01.40	02.00
03.15	03.25	03.35	03.40	04.00
04.15	04.25	04.35	04.40	05.00
05.15	05.25	05.35	05.40	06.00



"Lotzen gaTTunk", #Kilometroak15-en soinu banda

Gustuko abestia izan eta zuen erreperetorian txertatzea es-
pero dugu, zioen Mariaje
Imaz Udaregi Ikastolako zuzenda-
riak, #Kilometroak15 ekimenaren
abesti aurkezpenean. "Lotzen Ga-
TTunk" kantak jarriko dio doinua,
urriaren 4an udalerrri honetan ospa-
tuko den jaialdiari.

Abestia landu duen taldeko
zenbait ordezkari bildu zituen aur-
kezpen ekitaldiak. Kantaren letrak
Jakoba Errekondok sorturikoak dira.
#Kilometroak15 ekimeneko one-
na leloa dela aipatzearekin batera,
berak Gattunk hitzari lotzen erantsi
nahi izan diola adierazi zuen. Lotu-
ra islatu nahi zuen abestiko letran.
"Euskaraz ari bagara, ikastola baldin
badugu, hari batek lotzen gaitue-
lako ari gara. Euskararen historiari
lokarri luzearen hari gara: iazko
Orioko txikotarekin lotzen dugu
geure soka, lokarria, lixta, haria",
Errekondoren esanetan.

Komunitaterik gabe ez dagoela
hizkuntzarik eta "(h)ari garelako
bada hizkuntza", bi ideion hari-
tik sortu du letra. Usurbilgo noka
ere txertatu nahi izan du, aipatu
komunitatea emea baita. "Balo-



Kantua QR kode honen bidez entzun dezakezu, edota kilometroak.eus orrian.

JAKOBA ERREKONDO

**"Euskaraz ari bagara,
ikastola baldin badugu,
hari batek lotzen
gaituelako ari gara.
Euskararen historiari
lokarri luzearen hari
gara"**

reen transmisioa, kulturarena,
hizkuntzarena baita ere emea da.
Hortik bertako, Usurbilgo hika
emearen, nokaren aditzen era-
bilera: zitxatoztalakoa, genitxa-
toztinan, gatoztin", Errekondok
argitu zuenez.

"Kohesiorako asko balio izan digu"

Jakoba Errekondoren letrari, doinua,
herriko musikari talde batek jarri dio.
Labriten esanetan, letra jaso zute-
nean, hain ezohiko eta irregularra
iruditzen zitzaion, shock egoeran gera-
tu zirela, "baina hori guztia gainditu-
ta, letraren magiak bizia hartu zuen".
Hortik aurrerako sorkuntza proze-
suan, argi zuten herriko musikarien
arteko elkarlana sustatu beharra
zegoela. Esperientzia berria izan da
guztientzat. Oso ondo pasa dute eta
"kohesiorako asko balio izan digu",
Ixak Arrutiren esanetan.

Abestiaren bideoklipa apirilaren
22an aurkeztuko dute, 19:00etan
Sutegin.

Parekidea, jasangarria, inklusiboa

#Kilometroak15 ekimenaren abesti
aurkezpena, urriaren 4ko jaialdia he-
rrian sortzen ari den mugimenduaz,
izaten ari den eraginaz hitz egiteko
baliatu zuten baita antolatzaileek.
Pozik agertu ziren hedabideen aurre-
ra. Leloa aurkeztu zenetik ia 4 hila-
bete igaro diren honetan, "Gattunk",
#Kilometroak15 ekimenetik harata-
go, usurbildarren marka bihurtzen
ari dela aipatu zuten.

"Udarregi Ikastola garatzen ari
den Hezkuntza Proiektu berria bul-
tztatzeaz gain, 2015eko Kilometroe-
tan auzolanean, inklusibitatean,
jasangarritasunean eta parekide-
tasunean sakontzeko lehen harriak
jarri nahi dira; harri horien gainean
eraiki nahi dugu, pixkanaka, usur-
bildarrontzat, gipuzkoarrontzat eta
euskal herritarrontzat desio ditugun

hizkuntza eta herri eredua", antolat-
zaileen esanetan.

Udarregi, sendo errotuta

Aurreko irailean inauguratu zen
eraikin berrirako finantzazioa lor-
tzea eta ikasturte honetan martxan
jarritako hezkuntza proiektu berria,
Konfiantzaren Pedagogia deritzo-
na, garatzea dira #Kilometroak15
ekimenaren helburu nagusiak. Hel-
buruok betetzeko, auzolana ezin-
bestekotzat jo zuen Mariaje Imaz,
Udarregi Ikastolako zuzendariak:
"Udarregi Usurbilen sendo errotuta
dagoen proiektua da, herriarekin
eta herriarentzat lan egiten duena.
Alabaina, auzolana eta herriaren
partaidetza, hitz eta asmo hutsetan
gera ez daitezen, nahitaezkoa da
lanketa sakona egitea".

Mertxe Aizpurua: "Herri osoa dago egitasmo honen jiran"

Usurbilen auzolan erraldoia bizitzen
ari garelako zioen Mertxe Aizpurua
alkateak, #Kilometroak15 kantu aur-
kezpenean. Udalerriak urriaren 4ko
jaialdia antolatzekeo lekukoa hartu
zuenetik, herritarren inplikazioa lor-
tzeke ez dela ahalegin berezirik egin
behar izan, zioen. "Herri osoa dago
egitasmo honen jiran. Lotura hau
era naturalean eman da, eta honen
arrazoia haxe da. Usurbilen, herria,
hizkuntza eta hezkuntza erabat lotu-
ta daudela Udarregi Ikastolari. Izan
ere, Udarregi Ikastolari esker baita
ere, hezkuntzaren bidez, herriaren
kontzeptua hizkuntzari itsatsita
dago", alkatearen esanetan. Bere
ustez, egungo Usurbil ezin da ulertu,
euskararik eta ikastolarik gabe.

#Gattunk kantaren letra

GaTTunk, GaTTunk,
lotzen gattun harira
GaTTunk, GaTTunk,
lotzen GaTTunk lotzen GaTTunk

Hariketan ari
Harik eta behar den artean ari
artean arin

GaTTunk, GaTTunk,
lotzen gattun harira
GaTTunk, GaTTunk,
lotzen GaTTunk lotzen GaTTunk

lokarri listari sokari hari

GaTTunk, GaTTunk,
lotzen gattun harira
GaTTunk, GaTTunk,
lotzen GaTTunk lotzen GaTTunk

Hari artean, hari tira hari hari
Hari artean, ahalari tiraka
Hari artean, hariari tiraka ari
Hari artean, hari hariketa
Hari artean, hari tira hari tira
Ahalari tiraka,
hariketa hariketa

Hari GaTTunk
ari GaTTunk TTunk
Hari GaTTunk
baGaTTunk ari
Hari GaTTunk
ari GaTTunk
BaGaTTunk hari
hari GaTTunk GaTTunk

Lotu josi heldu
Bai baGaTTunk
ba ote goaz
goaztean

Zitxatoztalakoa,
genitxatoztinan, gatoztin
Bai baGaTTunk
Zitxatoztalakoa,
genitxatoztinan, goaztean

Hariketan ari
Harik eta behar den artean ari
artean arin

Hitzak: Jakoba Errekondo.
Doinua: Herriko musikariak.
Nahasketak: Haritz Harreguyk
Higain estudioetan.
Mastergintza: Jonan Ordori-
kak Mamia estudioetan.

Herri oso bat korrika



#Argazkitegia erredakzioa@noaueus helbidera igorri dizkigutenak



Iñaki Agirresaroberen albuma ikusgai duzue web orrian.



Josune Estellaren argazkiekin beste album bat zabaldu dugu.



Lurdes Huetak irudi pilo bat igorri digu.

#Bideoak www.noaueus



Korrika Usurbilen. Bideo gehiago: www.noaueus orrian.

Korrika Txiki



Korrikaren bezperan ospatu zuten Zubietan.



Usurbilen, biharamunean eta frontoian, euria ari zuelako.

Badok 15 jaialdia



Argazkia: Iñaki Agirresarobe



Badok15 jaialdiaren baitan, ibilaldi kulturala egin zuten asteburuan (ezkerretik hasita, lehen bi argazkiak). Eskubian dira Inorkinak, igandean frontoian eskaini zuten erromerian.

Lekukoa, eskuz esku

Etumeta AEK Euskaltegikoek eta Korrika Batzordeko kideek eskerrak eman nahi dizkiete partehartzaile guztiei, eta Korrika posible egin duten guztiei. Tartean, kilometro bana erosi zituzten talde eta erakundeak. Hemen dituzue lekukoa eraman zituztenen argazkiak.



Zubietako Lanbide Eskolakoak, Korrikarekin bat.



Zubietako Herri Batzarreko kideek ere hartu zuten lekukoa.



Eskola Txikiko ikasleek abiada ipini zioten Korrikari.



Udal gobernuko kideek lekukoa eskuz esku eraman zuten.



EH Bildukoek Zubietan eraman zuten lekukoa.



Josuk eta Leirek bikain ordezkatu zuten NOAUA.



Andatzpe elkarteak Santuenean izan ziren korrika.



Elhuyarrek herri kaxkoaren sarreran hartu zuen lekukoa.



Irudian, Etumeta AEK Euskaltegiko ikasleak.



Box Tailerraren izenean bi gazte aritu ziren korrika.



Udarregiren txandan, #Gattunk kamisetak nagusitu ziren.



Andatzakoek Atzegalden hartu zuten lekukoa.



Berriolakoek Lasaotik Galardirako bidea osatu zuten.



Irisasi Gazte Zentrokoek Aginagarainoko bidea egin zuten.



Aginagako Jai Batzordekoak Mapileraino eraman zuten.

Aretxabaletara irteera antolatu dute Andatzako kideek

Apirilaren 12rako finkatu du herriko mendizale taldeak hurrengo irteera. Oraingoan, Debagoiena aldera joateko gonbita luzatzen digute. Urkulu-Kurutzeberri-Andarto-Urkulu (Aretxabaleta) ibilbidea osatuko dute. Irteerarako izen emateko epea zabaldu dute.

■ Abiatzeko hitzordua: 7:00etan, Oiardo Kiroldigitik autobusez.

■ Ibilbidea: Urkulu-Kurutzeberri-Andarto-Urkulu (Aretxabaleta). 19 kilometro.

■ Izen ematea: 12 euroko ordainketa egin apirilaren 8a baino lehen, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321.

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805.



Apirilaren 12an egingo dute irteera baina aldeztatik eman behar da izena eta 12 euro ordaindu. Apirilaren 8a baino lehen, hain zuzen.

■ Plaza mugatuak.

■ Otordua, ibilbidea amaitutakoan egingo da.

■ Janaria norberak eraman behar du.

■ Edaria antolatzaileek eramango dute.

■ Andatza M.K.T.-k antolatzen

dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.

■ Informazio gehiago:

andatzamendizale.info

Antolatzailea: Andatza Mendizale Kirol Elkarte.

Apirilaren 2an, Arantzazura

■ Abiatzeko ordua: goizeko 05:00etan, Mikel Laboa plazatik.

■ Ibilbidearen luzeera: 63 km.

■ Ibilaldia: Andatza, Ziortzako langa, Andatzarrate, Zelatun, Mandubi, Itsaso-Ezkio, Zumarraga, Legazpia, Udala gaina, Aizkorri ingurua, Katabera eta Arantzazu.

■ Iraupena: 12-13 ordu.

■ Prezioa: 50 euro, autobuseko joan etorriak eta eguneko otorduak barne. Aipatu diru kopurua, egunean bertan ordaindu behar da.

■ Otorduak: Mandubian hamaiketako, Legazpian bazkaria eta Arantzazun afari merienda.

■ Eraman beharrekoak: biderako otartekoa eta ura. Aldatzeko arropa. Itzultzeko autobus zerbitzua, ibilbideko puntu ezberdinetan eta helmugan.

■ Izen emateko: deitu 600 669 276 (Joxemiel Otaegi).

noaUA euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaUA.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!



EAJ-PNV: “Eskualdeko Garapen Agentziak eratu gabe jarraitzen du”

Buruntzaldeko EAJ-PNVren ordezkariak agerraldia egin dute aste honetan, Astigarragan, Beterri garapen agentziari buruz bere balorazioa egiteko. Alderdi jeltzalearen esanetan, EH Bildu gezurretan ari da: “Erakunde hau ez da eratu, ez dago martxan, eta udalbatzek ez dute agentzia eratzea onartu”, hala ziurtatu du Urnietako alkateak, Mikel Pagolak. Agerraldi berean zen Josune Urkola Usurbilgo EAJ-PNVko zinegotzia.

EH Bildu “herritarrek eta enpresak nahasi nahian dabilela” dio EAJ-PNVk. Eskualdeko agentzia eratuta dagoela eta forma juridikoa zehaztea bakarrik falta dela adierazi zuen ezber abertzaleko koalizioak. EAJren esanetan, agentzia eratzea udalbatzen eskumena da, eta eskualdeko sei herrietatik batek berak ere ez duela erabaki hori hartu, “nahiz eta EH Bilduk hori esan etekin politikoa ateratzeko”. Mikel Pagolak jakinarazi du gaia Hernani, Astigarraga eta Usurbilen bakarrik eztabaidatu dela, hau da, ezker abertzaleak gehiengo absolutua daukan herrietan. Gaineratu du hiru kasuetan erakundeak izango lituzkeen estatutuak bakarrik onartu direla, eta, beraz, ez dela erakundearen sorrera inondik inora onartu.

Hiru herriek “aldebakartasunetik aurrera egitea erabakiko balute ere, arazoa konpontzeki egongo litzateke. Izan ere, Garbitaniarekin egin zuten bezala, gardentasun ezaren ildotik lan egiten jarraituko balute ere, Urnieta, Lasarte-Oria eta Andoain ez lirateke erakunde berrian sartuko, ezker abertzaleak ez duelako gehiengorik



EAJ-PNVko Buruntzaldeko ordezkarien esanetan, Agentziaren inguruan EH Bildu gezurretan ari da.

Buruntzaldeko EAJ-PNV

“Herri guztiak batuko dituen agentzia nahi dugu: ezker abertzaleak gehiengorik ez daukan herriak eta baita arazo ekonomikoak dituztenak ere batuko dituen, argi baitaukagu eskualdeko agentzia on batek bailarako herritarrei onura besterik ez diela ekarriko”

hiru herri hauetan”.

Hori gutxi balitz, Andoainek beste arazo bat dauka. EAJren esanetan, “zor handia daukanez Andoainek, ezin da proposatzen denaren moduko erakunde baten kide izan. Egoera horren aurrean, zer saldu nahi du Bilduk? Agentzia ez da eratu, eta ezingo da egin, baldin eta koalizioak atzera egin eta gainerako alderdiekin adostasuna bilatzen ez badu”,

azaldu zuen Mikel Pagolak.

Urnietako alkateak esan du Bildu “gezurretan” ari zaiela herritar eta enpresei Beterri agentzia eratuta dagoela esatean. Argudiatu du eskualdeko sei herriek lankidetzak akordioak sinatu zituztela duela urte asko, eta proiektu mordoak egiten dituela elkarlanean turismoa, enplegua eta merkataritza sustatzeko, besteak beste. Salatu du lankidetzak akordio horiek erabili dituela orain Bilduk Beterri agentzia eratuta dagoela iragartzeko. “Aurkeztu dutena ez da berria. Lankidetzak hori abian dago aspalditik”, zehaztu du.

EAJ-PNVren ordezkariak gogor kritikatu dute Bildu aldebakartasunetik ari dela, eta koalizioak hauteskunde bezperan “etekin politikoa” lortzeko asmoa daukala uste dute. Horregatik, Buruntzaldeko sei ordezkari jeltzaleek mozioa aurkeztu dute euren Udaletan, Beterri agentzia eratu dela gezurtatzeko eta Bilduri eska-

tzeko errespetatzea udalen erabakitze organoak, horiei baitagokie tamaina honetako erabakia hartzearen ardura. EAJ-PNVk atzera egiteko eskatu dio Bilduri, “eta ez ditzala eskualdeko agentzia eta Udalak erabili etekin politikoa lortzeko”.

Proiektu bat aurkeztuko dute laster

Pentsaurreko berean jakinarazi zuten diskrezioarekin lanean jarraitzen dutela Buruntzalderako proposamen parte hartzaile eta bateratzaileak egiteko. “Hilabetetan lanean aritu ondoren”, jeltzaleek datozen asteetan aurkeztuko dute proiektua. Aurreratu dute eskualdeko eragile eta elkarteekin egiaztatuko dutela edukia. “Guztiekin baita Bilduk ere izango dute iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukera, EAJ-PNVren helburua Buruntzaldea osoari zerbitzua emango dion agentzia eratzeak, ahalik eta adostasun handiena bilatzea baita”.

Munduko onenen artean dela berrestera

Aurreko astean elkarriketatu genuen. Portugaldik iritsi berria zen. Aste osoa eman zuen Espainiako selekzioarekin entrenatzen. Abiadura olinpikoan, munduko txapel-dunak dira. Iaz lortu zuten balentria hori berretsi egin nahi dute asteburu honetan, Apeldorn hirian (Herbeherak). Txirrindularitza egokituari dagokion Pistako Munduko Txapelketa jokatu da bertan. Igande honetan jokatu da abiadura olinpikoko lasterketa. Iazko emaitza errepikatzen badute, Rio de Janeiro 2016ko Olinpiar Jokoetarako txartela izango dute eskura. Amador Granadosentzako, denik eta altxor preziatuena.

Munduko Txapelketa baten atarian, sasoi aldetik nola aurkitzen zara?

Amador Granados. Uste baino okerrago itzuli naiz Portugaldik. Duela bi hilabete Newporten izan nintzen, Galesen. Baina sukarrarekin aritu behar izan nuen. Portugalgo entrenamenduetan hobeto ibiliko nintzela uste nuen, baina ez da horrela izan. Hala ere, oraindik bada denbora. Ez dut urduri jarri behar orain.

Denboraldiko lasterketa inportanteena izango da igande honetakoa, ezta?

Hau da denboraldiko unerik garrantzitsuen. Pistako Munduko Txapelketa Herbeheretan jokatu da, asteburu honetan, Apeldorn hirian. Nire lasterketa igandean izango da, martxoaren 29an. Uztaila bukaeran jokatu da errepidetako Munduko Txapelketa, baina errepidetako selekzioan sartzeko oso zaila daukat.

Kilometroko distantzia izan da zure lasterketa gustukoena. Abiadura olinpikoan lortu zenuen munduko txapeldun izatea. Asteburu honetan, zein izango da zure helburua?

Iaz entrenatzaileak esan zidan bezala, abiadura olinpikoan aritzeko nago selekzioan. Eta hori da nire helburu nagusia. Hori ari naiz prestatzen. Kilometroko distantzian ere aterako naiz, martxoaren 26an, baina batez ere nerbioak gainetik kentzeko. Helburua abiadura olinpikoa da.

Iaz, munduko txapeldun izan zineten.

Bai taldekako lasterketa da abiadura olinpikoa. Munduko txapeldunak gara,



Amador Granados munduko txapeldunaren kamisetarekin, atzean Usurbil duela (argazkia: Carlos Jimenez).

AMADOR GRANADOS

“Iaz munduko txapeldunak izan ginen abiadura olinpikoan eta hori errepikatzea izango da gure helburua”

eta marka onena ere gurea da.

Europar jokatu da aurten. Egokitzena errazagoa izango da oraingoan, ezta?

Bai, hala da. Niri oso ondo datorkit. Europatik kanpoko edozein tokitan, ordu aldaketak asko eragiten dit.

Eta pista hori ezagutzen al duzu? Edo Apeldornen aritzen zaren lehen aldia izango al da?

Herbeheretan aritu izan naiz baina pista honetan ez. Egurrezkoa da eta diotenez belodromo ona omen da. Itsasoaren mailan dago, eta horregatik egon gara Portugalen entrenatzen. Egokitzena ahalik eta ondoen osatu nahian.

Zer emaitzarekin itzuli nahiko zenuke?

Bai edo bai irabazi behar dugu. Munduko txapeldunak gara, baina talde ona dugu gainera. Irabaziko bagenu, 2016ko Olinpiar Jokoen ateak parez pare irekiko litzazkiguke. Eta Rion domina eskuratze-ko hautagai sendoa litzateke gure taldea.

Arerioen berririk ba al duzue?

Urtero aldaketak izaten dira. Lasterketa gutxi daude gainera, eta ez dakigu oso ondo nolako arerioak izango ditugun. Eta esan dizudan bezala, beti ateratzen da jende berria. Beraz, ez ditugu datu asko eskuartean.

Iaz, Munduko Txapelketara iristea ez zen erraza izan. Urtebeteko epean, gauzak aldatu egin dira edo gauzek berdin jarraitzen al dute?

Kiroletik at kudeatu behar izan nuen nire partehartzea, eta horrek ez zituen hautatzailearekiko harremanak erraztu. Baina irabazi egin genuen eta ez dago garai-pena baino argudio sendoagorik.

Hautatzailea azkarra da eta badaki urrezko domina bat oso interesgarria dela selekzio batentzat. Ranking batean gora egin dezake herri batek urrezko domina batekin eta horrek puntuak eta bestelako abantailak dakartzio. Orain harreman ona dugu hautatzaileak eta nik.

Lasterkari askorentzat, hil ala biziko egunak izango dira. Emaitzaren arabera, bekak eta laguntzak ziurtatzeko modu bakarra domina bat eskuratzea baita.

Hori da, bekak eta laguntza publikoak daude jokoan eta jendeak horri eutsi nahi dio. Selekzioetik kanpo geratzen bazara, ekarpen horiek gabe geratzen zara. Niri ere pasa zitzaidan. Horregatik, asko dago jokoan.

Zure ibilbidearen amaieran zaude. Lasterketa hau oso garrantzitsua izango da zuretzat.

Bai, nire helburu nagusia Olinpiar Jokotako domina bat eskuratzea delako. Partehartu izan dut Jokotan, baina ez dut inoiz lortu dominarik. Baina berriro gertu daukat hori lortzeko aukera. Horregatik jarraitzen dut entrenatzen.

Jubenil neskak, Euskadiko txapelketako finalean



Etxebarrin jokatuko dituzte azken faseko neurketak.

Denboraldi bikaina osatu ostean, Euskadiko txapelketa jokatzeko sailkatu ziren o-tsaila hasieran. Eta hilabete beranduago, aipatu txapelketako amaierara heldu dira, azken fasera. Jubenil nesken eskubaloia taldea Euskadiko Txapelketako finalean da. Martxoak azken asteburu honetan, hilaren 27, 28 eta 29an jokatuko ditu neurketa garrantzitsuak, euskal talde onenen aurka. Barakaldoko Zuazo, Etxebarriko Kukullaga eta Ermuako Errotabarriekin lehia-tuko dira.

"Duela pare bat urteko amaiera fase bera", jubenil nesken esanetan. Oso pozik dira lortu-takoarekin. Eta ez dute meriturik falta. Jokalari kopuru aldetik mugatua egon den taldea izan baita denboraldi osoan. 7 kiderekin lortu dute Euskadiko Txapelketan goiko postuetan sailka-tzea. Egin duten ahalegin eta eguneroko lanak emaitza bikainak ekarri dizkie. Zorionak!

Aste Santuan, Kirol Txokoak Usurbil FTrekin

Martxoaren 27a azken klase eguna izan-go dute haur eta gaztetxoek. Gero bi asteko oporraldia, aisialdirako tarte zabala. 6-12 urte arteko haur eta gaztetxoek ordea kirola eginez igaro dezakete oporren azken txanpa, kirol txokoak antolatu ditu eta Usurbil Futbol Taldeak, aipatu adin tartean dau-denentzat. Apirilaren 7tik 11ra, goizez eta hiru

orduz: 9:30-12:30 artean. Futbola dute ardatz nagusi, baina bestelako jarduerak ere tartea dute kirol txokoetan; eskubaloia, herri kirolak, saskibaloia, jolas tradizionalak... Txokoetako jar-duerok bideratzeko hiru instalakuntza baliatuko dituzte; Harane, Oiardo Kiroldegia eta frontoia. Informazio gehiago eta izen ematea: futususurbil@yahoo.es

Eskubaloia Kiroldegian

Martxoak 28, larunbata

09:30 Infantil mutilak:
Udarregi Usurbil-Amenabar B
10:45 Alebin mutilak:
Udarregi 5B-Urnieta 5A
10:45 Alebin mutilak:
Langile A-Udarregi 5C
11:45 Alebin mutilak:
Udarregi 6C-Urnieta 6A
13:00 Jubenil mutilak:
Usurbil K.E.-CB Urola F. Luis Angel
17:00 Senior neskak:
Usurbil K.E.-CB Muskiz

Martxoak 29, igandea

09:00 Alebin neskak:
Usurbil K.E. "A"-Hernani ET
10:00 Kadete neskak:
Usurbil K.E. "B"-Carpinteria Baskongadas
11:30 Senior mutilak, 1. Territoriala:
Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

Futbola Haranen

Martxoak 28, larunbata

11:00 Infantil mutilak:
Usurbil F.T.-S.A.N.S.E. "B"

Martxoak 29, igandea

11:00 Alebin federatuak:
Danena K.E.-Usurbil F.T.

Errifa zozketa

Ibai Orena Irureta herritarra izan da, Usurbil Kirol Elkartek antolaturiko errifa zozketako azken saritua. 2.491 zenbakidun errifaren jabeari bi lagunentzako afaria tokatu zaio, Saizar sagardotegian.



**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.eus

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ETXEBIZITZA

Salgai

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Neska eta emakume bat bilatzen da pisua konpartitzeko. 250 euro +gas-tuak. Kale Nagusia. 606642161

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxe-erentziat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldea. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, ora-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

in 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailaen. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan

Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Etxe bat Txokalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko.

943 366 710

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxe lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperimentzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperimentzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperimentzia. 682 214 506.

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agiriekin. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxe lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperimentziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperimentzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxe lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest

nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailatik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filofsia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperimentziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperimentzia eta papela. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperimentzia daukat. Ezagutza, sukaldaritza, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperimentzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperimentzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperimentzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperimentziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxe



Zorionak Annie!

Muxu handi bat Unai, aita eta amaren partetik.



Zorionak Garazi!

Martxoaren 13an 10 urte bete zenituen. Jarraitu beti bezain alai izaten. Muxu pila bat familia osoaren partez.



Zorionak Irai!

Apirilaren Sean... urtetxo bat! Muxu asko aita, ama, Victor eta amonaren partez!



Zorionak Ariana!!

Martxoaren 27an 8 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Aginagako ikasle eta irakasleen partez!



Zorionak Irene! Apirilaren 3an, 5 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Aginagako ikasle eta irakasleen partez.

Oharra: Aste Santuan eta Pazko Astean ez da aldizkaririk izango. Martxoaren 27ko NOAUA! eta gero, hurrena apirilaren 17an irtengo da. Oharrak, zorion-agurrak... Apirilaren 13rako ekarri edo igorri: erredakzioa@noaua.eus

Heriotzak

Miguel Canseco Chavero
Martxoaren 21ean, 93 urterekin



Jesus Sancho Cisneros
Martxoaren 22an, 87 urterekin



Miren Elgarresta Agirre
martxoaren 22an, 82 urterekin



lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gaztee-kin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketaren eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulu (goi maila) Ingelesa: Advanced titulu (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko

persona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketaren edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, L.H.-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaindiko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Iratzi)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein

arra-tsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldar, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketaren eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formalak etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

BESTELAKOAK

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak eta egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure mas-kota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo baba-rrunak salgai, artoarekin batera erinda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Martxoak 26-apirilak 05

Osteguna 26	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Ostirala 27	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 28	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 29	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 30	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Asteartea 31	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 01	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 02	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Ostirala 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 04	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 05	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Astelehena 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekitu
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda martxoa

27 ostirala

- **Jubilatu Astea: barreterapia.** 17:00etan Artzabalen.
- **Rafafa magoa.** 18:00etan Bihurri ludotekan.
- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00. Mikel Laboa plazan.

28 larunbata

- **Ziortzaren udako kanpaldirako aurre-matrikulazioa.** 11:00-13:00 Apaiz Etxean.
- **Kantu-jira.** 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

29 igandea

- **Jubilatu Astearen amaiera: meza eta bazkaria.** 12:00 Meza, hildako bazkideen alde. 14:00 Bazkaria Aialde Berri sagardotegian (izen-ematea martxoaren 20an amaitu zen).

Erabakitze eskubidearen inguruko hitzaldia Sutegin

Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak antolatuta, ostiral honetan, 19:00etan Sutegin auditorioan. Zelai Nikolas eta Gaizka Aranguren gonbidatu dituzte, Pello Zubiriak bideratuko duen hitzordura. Erabakitze eskubideaz eta Gure Esku Dago mugimenduaz ariko dira. "Zer egoeratan gaude gaur egun? Zein dira gure ahultasun eta puntu indartsuak? Zer egin hemendik aurrera?. Oso interesgarria izango delakoan gaude eta bertan ikusi nahi genizuke zuri ere! Guztiok gara gure etorkizunaren jabe, guztiok gara justu!", diote antolatzaileek.



Ostiral honetan Zelai Nikolas eta Gaizka Aranguren (argazkian) etorriko dira gure artera.

Mahai ibiltaria

Ekainaren 20an antolatu den nazio mailarako ekimenerako izen emateko mahaia jarriko dute ostiraleko hitzaldiaren ostean. Baita apirilaren 5ean eguerdi partean. Frontoi inguruan jarriko dute.

Errifak

Gure Esku Dagok berriki antolaturiko errifa

zozketako zenbaki sarituak atera dira:

1. saria, Eskoziara bidaia: 2216.
2. saria, Kataluniara bidaia: 10724.
3. saria, Goierriko landetxe batean egonaldia: 16685.

Sarituetoako bat bazara, idatzi karmele@gureeskudago.eus helbidera. Saria eskatzeko azken eguna, apirilaren 30a.

Jubilatu astea, azken txanpan

Martxoak 27, ostirala

17:00 Hitzaldia: barreterapia.

Martxoak 29, igandea

12:00 Meza hildako bazkideen alde.

14:00 Bazkaria Aialde Berri sagardotegian.

Antolatzailea: Gure Pakea Elkartea.

Larunbatean, kantu-jira

Otsaileko kantu-jira berezia izan zen. Gas-teiztar kantarien laguntzaz aritu ziren, eta eguerditik. Martxokoan ordea, ohiko ohiturak berreskuratu dituzte.

Martxoaren 28an larunbata, arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta afal ordura arte, kalez kalez kantu kantari ibiliko dira.

Datozenak

Apirilaren 15ean "Beltzean mintzo"

dokumentala Sutegin

Kitxua, nasa, nahuatl, kaqchiquel, aima-ra, maputxe eta maia yukatek hizkuntza komunitateetako ordezkariak beraien hizkuntzaren egoeraz eta euskararengandik ikas dezaketenaz hitz egiten digute eta, "bide batez, guk haiengandik ere ikasteko aukera eskaini". *Beltzean mintzo* dokumentalaren mamia duzue. Garabidek, NOAUAk eta Usurbilgo Udalak antolaturiko proiektioa, apirilaren 15ean, 18:00etan Sutegin.

Apirilaren 16an, Txan fantasma Sutegin

5-9 urte arteko haurrei zuzendua dago Mariasun Landaren "Txan fantasma. Neskak baten eta fantasma txiki baten arteko adiskidetasuna" txotxongilo ikuskizuna. Apirilaren 16an, 18:00etan Sutegin.

Fracking-a hizpide

Usurbilgo Gaztetxeak antolatuta, apirilaren 17an, 18:00-19:30 artean Potxoe-nean. Fracking-Ez taldeko kide bat ariko da hizlari lanetan. "Gure lurra mehatxatzen dituen gaitz honen inguruan hitz egingo digu", antolatzaileen esanetan. Segidan, afari beganoa eta sorpresa gehiago iragarri dituzte, Gaztetxean.

Pinturas Ion

KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarainiturgintza@gmail.com

ELORZA

O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

OSASUN GIDA 2015



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapolak neurria eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2x1

PROGRESIBOETAN



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

Kima
MASAJE LEKUA



• Kirol masajea
• Masaje terapeutikoa
• Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize
arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

ORDUTEGIA BERRIA (EKAINERARTE):

asteartea	9.00 - 15.30
asteazkena	9.00 - 13.00 / 15.00 - 19.30
osteguna	9.00 - 13.30

ORDUTEGIZ KANPO UTZI MEZUA 943 11 09 54 TELEFONAN



Öinutsik

☎ 943 11 09 54

✓ Azterketa biomekanikoak ✓ Plantilak
✓ Papilomak ✓ Erreflexoterapia
✓ Kolagenozko infiltrazioa ✓ Kiropodiak

Zubiaurrenea 2, Usurbil



Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
108/12 P.E.Z.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatiakoak

Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

APIRILEAN

10 eta 20€ko
erosketa
baleak opari!

Sariak, Hurbilago txartelaren ordainagiritan
agertuko dira eta Hurbilagoko saltokietan
erabili ahal izango dira, 2015ko maiatzaren 31ra arte.

